

EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOAREN 2018ko DEIALDIA

**EZAGUTZAREN SORRERARAKO ETA I+G+B SISTEMAREN INDARTZE ZIENTIFIKO ETA
TEKNOLOGIKORAKO ESTATUKO PROGRAMARI LAGUNTZAK**

Dinamizazio ekintzak. "Ikerketa sareak"

<p>Helburua (1. eta 2. art.)</p>	<p>Ikerketa sareak honako hauek sortzera bideratuta daude:</p> <p>a) Sare tematikoak: jakintza arlo tematiko bereko edo antzeko jakintza arlo tematikoetako ikertzaileek eta antzeko helburuak dituzten eta diziplina anitzeko hurbilketa bat behar duten ikertzaileek osatuta daude.</p> <p>b) Sare estrategikoak: Europako ikerketa egitasmoetan parte hartzen duten edo estatuko organoen ordezkariak ezagutza zientifiko eta teknologikoarekin lotutako aholkularitza eskaintzen dieten, eta ezagutza hori handitzen edo haien artean zabaltzen duten kudeatzaile edo ikertzaile espainiarrek osatuta daude.</p> <p>Helburua: I+G+Bko ekintzen aurretiko emaitzak finkatzeko eta indartzeko ekintzak gauzatzea; etorkizunerako ekintza estrategiko zientifiko eta teknologikoak planifikatzea; aholkularitza zientifikoko eginkizunak betetzea; ezagutza trukatzeko eta aukerak hautemateko foroak sortzea, eta nazioarteko proiektu eta programetan sustapen ekintzak eta kokapen estrategikorako ekintzak bultzatzea, hartara, Espainiako ikerketaren aurrerabidean lagunduz, bereziki, Europako Ikerketa Eremuaren barruan.</p>
<p>Eskaerak aurkezteko epea (14. art.)</p>	<p>2018ko otsailaren 12tik martxoaren 5era 15:00ak arte.</p>
<p>Gauzatzeko epea (9. art.)</p>	<p>Urte bi, emakida ebazpenean zehazten den datatik zenbatzen hasita. Data hori ezingo da izan 2019ko uztailaren 1a baino lehenagokoa.</p>
<p>Modalitate honetarako erabilgarri dagoen aurrekontua (6. art.)</p>	<p>3.300.000, euro, beste 1 milioi gehiago ere izateko moduan.</p> <p>Ez da 150.000 eurotik gorako banakako laguntzarik emango zuzeneko kostuen kontzeptu gisa.</p>
<p>Ezaugarriak eta motak (9. art.)</p>	<p>➤ Sare motak:</p> <p>a) <u>Sare Tematikoak</u>: ezagutzaren arlo tematiko berebean edo antzekoetan diharduten ikertzaileek osatzen dituzte, eta kideetako batek zuzendu edo parte hartu behar izan du 11.2 art aipatutako I+G+Bko Estatu Planaren (2013-2016) batean.</p>

	<p>b) Sare estrategikoak: honako hauetan diharduten kudeatzaile edo ikertzaileak:</p> <p>1.- ezagutza eta berrikuntza komunitateetan (Knowledge and Innovation Communities, KIC) espainiar parte hartzaileen jarduerak babesten eta hedatzen;</p> <p>2.- onartutako Europako Ikerketa Azpiegituren Partzuergoetan (European Research Infrastructure Consortium, ERIC) espainiar parte hartzaileen parte hartzea eta koordinazioa bultzatzen;</p> <p>3.- Europar Batasuneko Ikerketa eta Berrikuntzako Programa Markoan (FET Flagships) onartutako ekimen enblematikoetan espainiar parte hartzaileen parte hartzea eta koordinazioa bultzatzen;</p> <p>4.- atzerrian dauden espainiar ikertzaileen arteko koordinazioa errazten edo estatuko organoen ordezkariari ezagutza zientifiko eta teknologikoarekin lotutako aholkularitza eskaintzen eta ezagutza hori handitzen edo haien artean zabaltzen.</p>
<p>SARE TEMATIKOAK (11.2.1º art.)</p>	
Sare koordinatzailea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin ➤ Jarraian zehazten diren deialdiren baten ikertzaile nagusia izatea, indarrean edo bukatuta dagoen proiekturen batean: <ul style="list-style-type: none"> - Jakintzaren sortzeko estatu azpiprogramaren I+G proiektuen 2013, 2014, 2015 2016 eta 2017ko deialdiak. - "Gizarte erronkak" 2013, 2014, 2015 2016 eta 2017ko deialdiak: I+G+B proiektuak
Ikerketa Taldea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin. ➤ Ikertzaile nagusiaren kasuan zehazten diren deialdiren bateko proiekturen baten ikertzaile nagusi gisa edo ikertaldeko kide gisa jardutea. Baldintza hau, gutxienez ikertaldeko %50ak bete beharko du. ➤ Ikertaldeak gutxienez 6 kide eta gehienez 15 kide edukiko du.
<p>SARE ESTRATEGIKOAK (11.art.)</p>	
Sare koordinatzailea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea edo goi mailako tituludun kategoria izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin
Ikerketa Taldea	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Doktore izatea edo goi mailako tituludun kategoria izatea. ➤ Lotura izatea entitate onuradunarekin edo deialdia betetzen duen beste entitate batekin.